

! Itsasondoko Andra Mari Elkarte

Nahiz eta Itsasondo herri txikia izan, bitxikeria asko ditu, eta horietako batzuk, herriko gazteok eta kanpotik etorri zarenok ez dituzue ezagutzen. Bitxikeria horietako bat "Andra Mari Elkarte" da. Elkarte aspaldi sortu zen, heriotzaren bat gertatzen zenean berria etxe guztietan jakin zezaten. Laurogeiko hamarkadan, elkarte kideek dirua eskaintzea erabaki zuten, familiek heriotza baten gastuei aurre egiteko baliabideak izan zituzten. Gainera, elkarte kide bakoitzak, familiari laguntza eta elkartasuna adierazten zion.

Urteak aurrera joan ahala, elkarte kide asko joan egin dira eta kide berri gutxi sartu. Hori ikusirik, idatzi honen bidez, elkarte eza-gutzeko aukera bultzatu eta bide batez, elkartean izena ematera animatzen zaituztegu. Herri honetan, urte askotan mantendu den elkar laguntza hau herritarren artean mantendu dezagun.

Eskerrik asko zuen arretarengatik.

Oharra: gurekin harremanetan jartzeko telefonoa: 615785890.

! Arbelaitz Elkarte

Arbelaitz Elkarte bazkide berrien bila dabil. Herritarren bat interesatua egonez gero bazkide egiteko, deitu telefono honetara: 608759697.

! Enirio-Aralar Mankomunitatea

Enirio-Aralarko Mankomunitateak liburu bat kaleratu du, 600.urturrena dela eta.

Enirio-Aralarko Mankomunitatea Gipuzkoako Natura gune erakargarrietako bat izan da bertako eta inguruko biztanleentzat, eta hala izaten jarraitzen du. Oso zonalde aberatsa da balioei dagokienez, natura eskaintza anitzekoa, eta horrek paregabe bihurtzen du arreta guztiz begiratzea merezi duen eremu hori guztia.

Hori eta gehiago topatu ahal izango duzue liburu honetan. Liburuok udaletxean izango dituzue eskuragarri.

Kultur Agenda**Gazte asanbladaren ekintzak**

Ekainak 29: 17:00 bingo gaztelekuan
Uztailak 2: 19:00 pintxo jana eta zinema gauean
Uztailak 10: Txindokira mendi irteera eta bazkaria
Larraitzen
Uztailak 15: Algara gaua Gaztelekun

Uztailak 4-22: Haurrentzako udalekuak**Uztailean zehar:****Nerabe eta gazteentzat ekintzak**

Uztailak 4-6: Bitxigintza tailerra
Uztailak 8: Henna tailerra
Uztailak 11: Sukaldaritza tailerra
Uztailak 14: Rafting egitera
Uztailak 20: Dokumentala
Izen ematea: Ekainaren 24a baino lehen.

Abuztuak 15: Andra Mari jaiak

Irailak 16,17,18: Herriko Festak

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- **Gizarte Langilea**
- **Udal Arkitektoa**
- **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkarte 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((12. zk)) Martxo-Ekain 2011

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Arantzadi Elkarte
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iñaki Aizpuru
Jose Ignacio Duhau
Jubilatuak
M^a Jose Arrizabalaga
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Segurola
Rosa Aurkia
Rosi Noguera
Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

! GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA IRAILEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((13. zk)) Ekain-Iraila 2011

**Eskerrik asko,
ederra benetan!**




Nikolas Rodriguez: argazkilaritza
afizio duen itsasondoarra
Udaleko berriak: 2007-2011ko udal agintaldia
Zaharrak berri: 1862ko Itsasondo

Kaixo irakurle!

Maiatzaren 22ko hauteskunde ondotik, Hego Euskal Herriko udal eta batzar nagusiek izan badute datozen urteetan zeinek gobernatu. Azken aste hauetako zurrumbilo politikoaren ahotan Bilduk bereganatu ditu komunikabideetako lehen lerroak, alderdi honek herritarrongandik jasotako babes zabalaren oiartzuna udalerriz udalerrri bidea eginez joan delarik. Aldaketei eusteko garaia dator orain, udaletxetik udalerrira. Gure herri koxkorrean ere udalak hartu du errelebo berria. Datozen lau urteotan udaleko aulkiak beteko dituzten alkate eta zinegotzi berriek hartu dute udal makila ilusioz, itxaropentsu. Haize berriak, arnas berria! Itsasondo 2.0 aldizkariak ongi etorri beroa egiten dizue gure herriaren ordezkari izango zaretenoi! Animo eta agur bero bat zuentzat!

Alez ale gu ere ari gara bidea egiten, Itsasondoren bizi istorioa osatzen! Beste behin ere kontu zahar eta berriak ezagutzeko parada ezin hobea eskaintzera gatoz zuen artera. Itsasondoko jubilatuen ahotik, garai bateko herriko txirindularien berri izango dugu. Iñaki Aizpuru, berriz, Gustave Dore grabatzaileak 1862an Itsasondo marraztu zueneko kontuak dakartzat gogora. Elkarrizketaren sailean, bestalde, Itsasondon bizi den Nikolas Rodriguez lasarte-arrak argazkilaritzaz hitz egingo digu. I. Herriko Egunaren ospakizuna ere tarte berezia eskaini nahi izan diogu herriko gazteek eginiko ahalegina txalotuz batera. Nola ez, ohi bezala, kontu eta berri interesgarri ugari topatuko dituzue ale honetako orrialdeetan barna.

Astindu aldizkaria eta gozatu Itsasondo 2.0ekin! Hurrengora arte! ■

Itsasondoko udal haustekundeak

DOINUA: Misiolari baten moduan (Txirrita)

Udaletxeko talde berriak jaso ditun aipamenak, eskolan, berriz, azaldu gure txoririk ezagunenak Niko Rodriguez bere makinazta bere argazki senak zabor bilketak plazaratzeko modu berrien sistemak... garai berriko lehen aleak emango dizkizu denak.

Itsasondoko herri eguna, garai bateko Itsasondo, Zuhaitz eguna, eta gazteak katalanez han-hemengo, burujabetzak bere bidean oso argi jo du bando, ibilbideak, informatika, sukalde kontuak ondo... esaera zaharrak dion bezala: zorrak zor, lepoa sendo!

Sarrerako bertsoak

- 03. **Udaleko berriak:** 2007-2011ko Udal agintaldia.
- 04-05. **Eskola:** Gure txori kuttunenak.
- 06-07. **Haur eskola:** Kurtsoa bukatzen.
- 08-10. **Elkarrizketa:** Niko Rodriguez, Argazkilaritza afizio duen Itsasondoarra.
- 11. **Agenda21:** Zabor bilketa sistema berria martxan.
- 12. **I. Itsasondoko Herri Eguna.**
- 13. **Kale inkesta:** Udal talde berria.
- 14-15. **Zaharrak berri:** Garai bateko Itsasondo.
- 16. **Katalanen dokumentala.**
- 17. **Arantzadi:** Zuhaitz Eguna.
- 18. **Gizartea. Gazteak.**
- 19. **Autodeterminazioa gero eta argiago.**
- 20-21. **Ibilbidea:** Itsasondo-Sarasola-Errezola-Itsasondo.
- 22. **Informatika:** Gipuzkoa Encounter.
- 23. **Itsasondoko aitonak:** Aspaldiko txirindularitza.
- 24-25. **Kultura.**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza.**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda.**

2007-2011ko Udal agintaldia

Joan den ekainaren 1 In egin zen Itsasondoko Udaleko Agintari berrien kargu hartzeko bilera. Alkate eta zinegotzi berriak gogotsu agertu ziren, eta lau urtez Itsasondoko Udaleko gestioan eta gobernuan arituko direnez, zorionak eman eta zorte ona opa diegu eginkizun horretan. Aldi berean, tartetxo hau aprobetxatuko dugu azken lau urteko denboraldian egin diren ekintzen gogoeta egiteko eta urtez urtez aurrera eraman diren proiektu eta obren azalpena emateko.

LAN SUSTAPENA

Azken lau urteetan, Udalean lanpostu berriak sortzeaz aparte, langabezia zeuden langileak kontratatu dira, urtez urte gutxienez persona bat. Langile hauek obra eta zerbitzu berezietan aritu dira eta INEMek edo Lanbidek emandako diru-laguntza izan dugu gastuak finantzatzeko.

Sortutako lanpostu berriak hauek izan dira:

Lan desberdinetarako langile baten plaza sortu eta bete da. Gizarte langile bat eta jardunaldi erdiko lanaldia duen Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaile baten plazak (Zaldibia, Gaintza, Legorreta, Arama eta Alzagako udalekin batera) bete dira eta jardunaldi erdiko lanaldia izango duen kultur dinamizatzaile baten lanpostua sortu da (hau betetzeko tramiteak oraindik egiteko daude).

Horretaz aparte, Haur, gazte eta nerabeen plana erredaktatzeko langile bat kontratatuturik dago jardunaldi erdian eta langile honekin Itsasondoko haur, gazte eta nerabeei zuzendutako ekintza berriak martxan jarri dira. Berdintasun plana erredaktatzeko ere beste langile bat kontratatu zen eta berdintasun alorreko ekintzak egin dira urtez urte Foru Aldundiak emandako diru-laguntzarekin eta Udalaren finantziaketaz baliaturik.

Azken lau urteotan egin diren plan eta ekintzen artean honako hauek azpimarratu daitezke:

AGENDA 21 Herritarren partaidetzarekin Itsasondoko diagnostikoa egin ondoren, ITSASONDOKO EKINTZA PLANA erredaktatu zen. Plan hau 2006ko abenduan onartu zen eta bertan jasotako ekintzak aurrera eramaten saiatu da Udala. Ekintza horietatik asko burutu dira, baina oraindik ekintza asko daude egiteko, eta datozen urteetan jarraitu beharko da, markatutako ekintzen aurreikuspenaren arabera.

EUSKERAREN ERABILERA PLANA. UEMA Mankomunitatearen barruan jarraitzen du Itsasondoko Udalak, eta urte hauetan 2008-2010 Euskara Plana eta 2010-2013 planak onartu dira. Plan horietan, markatutako helburuak jarraituz, Itsasondoko Udalak euskaraz bakarrik funtzionatzen jarraitzen du eta beste zenbait ekintzen artean UEMA eguna, euskararen aldeko diru-laguntzak e.a. izan dira.

BERDINTASUN PLANA 2007. Urtean erredaktatutako Itsasondoko Berdintasun Planean ezarritako lan ildoari jarraipena emanez, urtez urte, berdintasuna sustatzeko ekintza desberdinak egin dira.

IRISGARRITASUN PLANA: 2006. urtean erredaktatutako Irisgarritasun Plana jarraituz, legealdi honetan irisgarritasuna bermatzeko zenbait obra egin dira Sendagile anbulategian eta Goiko kaleko eta Nagusia kaleko urbanizazio obran. Aldi berean irisgarritasun obrak burutzeko diru-laguntzak eskatu dira.

ETXEBIZITZEN ARLOA

Udalak bere jabetzako etxebizitzak alokairuan emateko politika mantendu du, eta egun, hiru etxebizitza daude errentan emanda hiru herritarri.

ZERBITZU BERRIAK JARTZEA

Herritarren beharrak kubritzeko lehendik jorratutako bideari jarraituz (denda, kutxazaina, e.a.), Udalak herrian taberna bakar bat egoteak herritarrek kanpo herrietara bideratzen zituela ikusi zuen, eta herritarrek elkartzeko eta herri bizitza indartzeko asmoz beste taberna bat jartzeko proiektua bideratu zuen: "Kaxintane" taberna. Taberna 2008ko apirilean ireki zen, eta egun, ustiaketa herritar batzuen esku dago. Orain arteko emaitza baikorra da.

HAURRESKOLA 2005. urtean herri eskolako aretoan jarritako haurreskola txikiagia geratu zen, plaza kopurua zeuden eskariak baino txikiagoa zelako. Hori ilusita, Udalak Kalea etxean lokal bat erosi eta bertan haurtzaindegia kokatzeko egokitzapen obrak egin zituen. Itsasondoko haurreskolan 21 haurrentzako lekua dago egindako obrei esker.

2008 eta 2009. urteetan, LANDA GIPUZKOA 32 programaren bidez Itsasondoko herri bideetako pistak egokitzeko eta zenbait luizi konponitzeko obrak egitea lortu zen. Guztira egindako inbertsioa: 160.000 euro. Legealdi honetan ordenantza fiskalaren aldaketaz aparte, beste zenbait ordenantza onartu dira: RadioTelefonia, aparkalekuko ordenantzaren aldaketa, txakurren ordenantza e.a.

UDAL ONDAREA

Itsasondoko Udalak ondare garrantzitsua du eta azken lau urteetan egin diren erosketekin ondare hori handitu egin da. Legealdi honetan erosita-koen artean azpimarratzekoak honako hauek:

Erretebisioneko instalazioak zeuden lurrak okupatzeko errenta hitzarmena zegoenez, eta instalazioen kokapena denbora luzerako bermaturik zegoela ikusita, lur horren jabetza osoa eskuratu zen.

Kalea etxeko 93 m² lokala, haurtzaindegi erabilera duena, erosi eta egokitu da.

Kalea etxean bajera erosi eta haurreskola egokitzeko obrak egin dira.

Kaleak garbitzeko ibilgailua erosi da.

Ibilgailu elektrikoa erosi da.

Traktoreari erantsita, bideetan elurra kentzeko pala erosi zen Arama, Alzaga eta Itsasondorekin batera.

"Ingurune Naturalaren Kontserbazio Ekimenak" izeneko proiektuan markatutako helburuak betetzeko, Murumendi aldean zenbait lur sail eta Olasagasti inguruan Barruti zaharra saila erosi dira.

HIRI ANTOLAKETA

Hiri Antolaketa Planaren Erredakzioari ekin zitzaion 2006. urtean, eta herritarren artean parte hartze luzea aurrera eraman ondoren, hartu beharreko erabakiak eta erakunde desberdinen artean aurrera emandako prozesu luzea 2010. urtean amaitzea lortu zen.

Plan berrian, hurrengo urteetan eraiki ahal izango diren etxebizitzaren kopurua eta lur eremu desberdinen kalifikazioa jasotzeaz gain, onartutako erabilera eta beste zenbait aspektuekiko araudia jasotzen da.

Hiri Antolaketa plan honen arabera, garrantzia duen puntu nagusienetako bat herri guneko industria bertatik ateratzea eta hiri gunean etxebizitza berriak eraikitzea da. Helburu hori lortu ahal izateko, Ori ibaiaren ezker aldean, lehendik Ori ibaiak okupatzen zuen lur sailaren jabetza lortu nahi da. Lur eremu zabal honek 17.600 m²ko azalera duenez, bertan kokatu ahal izango direlako egun herri gunean instalaturik dauden enpresak.

Jabetza eskuratzeko tramiteak aurrera eraman dira, eta aurreratuta badaude ere, jabetza hurrengo legealdian lortzea espero da.

BESTE ZENBAIT OBRA

Sendagile bulegoak egokitzea.

Eskolako aterpea egokitu eta berogailua jartzea.

Gazte guneko egokitzapena eta berogailu sistema jartzea.

Bizi nahi Jubilatuen elkartearen lokala egokitzea Nagusia 16an.

Multimedia gela jartzea Goiko Kaleko gaztegunean.

Baserrietako seinalizazio lanak egin eta bionda jartzea baserri bideetako zenbait puntu arriskutsutan.

Izaskun Pentsioaren aurreko aparkalekua eta oinezko bidea egokitzea.

Ur hornidura sistema egokitzea, kontagailu berriak eta "radio lectura" bidezko sistema jarrita.

Itsasondoko udaletxearen erreforma obraren proiektua erredaktatzea.

Nagusia 27an taberna berria egokitzeko obra.

Beko kaleko parkea egokitzea joku berriak instalatuz.

Argi indar sarean soterramendua egiteko 1. fasea amaituz.

Kanposantuan berrikuntza obrak egitea, hezur kaxa berriak instalatuz. ■

Gure txori kuttunenak

Duela hilabete pare bat herriko hamar zuhaitzetan eskolako haurrek kabiak jarri genituen. Basoak gutxitzen ari direnean, txorientzat bizilekuak gutxitzen dabilta, eta hauei laguntzeko asmoz, egurrez egindako kaiolak ipini ditugu gure inguruko arboletan.

Jartzerakoan, arbolak historik gabe zeuden oraindik, eta oso errez ikusten ziren kokatutako kaiolak. Txoriek ere oso erraz ikusiko zituzten. Gaur, berriz, ostoz bete-beteta dauden garaian, oso zaila egiten da kaiolak ikustea eta are zailago, bertako bidea aurkitzea.

Egia esan, oso kaiola gutxitan sartu dira txoriak. Beharbada, gure kaiolarik gabe ere, beraien betiko kabietan moldatu direlako, edo agian, barrura sartzeko biderik aurkitu ez dutelako. Auskalo!

Dena den, kaiola hauek ikusten badituzue, utzi bakean! Dagoeneko bi desagertu dira. Seguraski, haizeak botata. Ez genuke gauza txarrik pentsatu nahi! Aurten ez bada, datorren urtean erabiliko dituzte txoriek.

Txoriez ari garela, lantxo bat egin dugu eskolan gure inguruko txoriak aztertuz. ■



1



BIRIGARROA

23 cm inguru neurtzen du hegazti honek. Bizkar aldea marroia du eta sabel aldea zuria, gezi moduko mantxa beltzez beteta.

Leku bakartietan bizi izaten da.

Orojalea da, eta edozein motatako intsektu, har, fruitu edo baia jaten du. Harrigarria da karakolaren oskola nola puskatzen duen: mokoarekin hartu eta harri baten kontra zanpatzen du puskatzeko eta jateko.

Lau edo bost arrautza jartzen ditu zuhaitzetan egiten dituen kabietan. Arrautzak urdin argiak dira eta 15 egun inguru egoten dira inkubatzen.

2



ENARA

19cm-ko hegaztia da. Luma ilunak ditu, eta sabel aldea zuria.

Kabia egiteko gorotzak eta belarra erabiltzen ditu. Teilatupeetan ugari ikusten dira.

Apirilean jartzen ditu arrautzak. Umeak 15 edo 16 egunetara jaiotzen dira. Enarak urtean hiru aldiz errun dezake. Aldiko bost arrautza jartzen ditu. Bi aste behar ditu inkubatzen.

3



KUKUA

Kukuak 33cm neurtzen du, eta batzuk grisak izaten dira, beste batzuk arreak.

Intsektuak jaten ditu.

Kukuak ez du kabiarik egiten, beste txorien kabietan jartzen baititu arrautzak. Beste txorien kabietan arrautzak baldin badaude, kontuz-kontuz hartzen ditu kabiko arrautzak, eta zuhaitzetik bota egiten ditu; gutxi gorabehera 15 kabitan egiten du gauza berbera.

Apirilaren hasieran, Afrikatik hona etortzen direnean, kukuka hasten dira. Negua iristen denean, berririo Afrikara joaten dira.

Kukua ikustea oso zaila da, baina udaberrian eta udan kuku egiten duenean badakigu hor dagoela kukua.

4



TXANTXANGORRIA

14cm da luze. Burua eta bularra laranja kolorekoak ditu.

Euskal Herrian bizi da. Kabiak lurtean eta harkaitzetan egiten ditu.

Intsektu txikiak eta zizareak ditu elikagai nagusi.

Bizkaian, apirilean hasten dira arrautzak jartzen.

Kantu oso polita du, eta batez ere, udaberrian kantatzen du.

5



TXEPETXA

Tamainaz oso txikia, hemen inguruan dugun txiekiena. Hala ere, oso kantu ozena du, udaberrian betez ere. Lumaje gorrixka, isatz motza eta tentea; txikia eta borobila. Landaredia baxua eta zarratua dagoen lekuetan oso ugaria da. Neguan oso erraz aurki daiteke etxe inguruetan. Arrak hainbat kabi egiten ditu eta emeak gustukoena aukeratzen du. Urtean bi aldiz jartzen ditu arrautzak eta batzuetan asko, gainera.

Intsektuak eta armiarmak izaten dira bere janari.

Kurtso bukaera

Kurtsoa bukatzen ari dela-eta, aurten ere gure zenbait zertzelada erakutsi nahi dizkizuegu. Aurten, kurtso hasieratik haurreskola beteta izan dugu, toperaino, eta holaxe bukatu dugu. laz bezala, ekintza ugari egin ditugu, esperimentazioari eta espresioari garrantzia emanez, eta hurrengo kurtsoetan ere berdin jarraituko dugu.

Goizero-goizero, haurreskolara nor etorri den ikusi ondoren, bisitari bat izaten dugu. Haur guztiak pozaren pozez itxaroten egoten dira ea noiz agertuko. Eta??Juli! Badator bere flautarekin haur guztiei banatzeko!

Sabela bete ondoren, gela jaso eta egun horretako ekintza egiten hasiko gara. Haurrak ilusioz saltoka hasten dira jakin nahian gaur ze sorpresa izango duten! Tenperarekin arituko al dira? Ala palomitak egingo ditugu? Auskalooooooooo!!! Ondo pasa!



Temperarekin margotzen. Ene, ze kuxidadea!



Artoarekin jolasean..baina artoa ez al da oiloi emateko, ba?



Ummmmmm! Ze goxoak palomitak!!

Udaberria heldu da eta baba, garbantzuak eta soja landatu ditugu... gero baratzen handituko dira!



Ene! Baina, jogurtak ez al dira goilarekin jaten? Ez egin berdin etxean zaudeteen, e!

Ai, komuneko paperarekin harrapatu zaituztegu! Baina, nundik atera dira hainbeste?



Ummm... nun egongo ote da bukaera?

Zer izango ote da tresna hau?



Ai... hainbeste lan egin ondoren, lasaitasun pixka bat.. goazen irakurtzera!



Hurrengo ikasturteari begira, zortzi haur hasiko dira haurreskolan; beraz, oraindik tokia badago nahi duenarentzat. Gogoratu matrikulazio garaia irailaren hasieran izango dela, azaroan hasteko. Beraz, nahi duenak, etorri dadila haurreskolara informazio gehiago eskuratzera. Besterik ez! Udara ondo-ondo pasa ezazue eta indarrak hartuta itzuli eskolara! Agur bero bat hezitzaileen partez! ■



Niko Rodriguez

Argazkilaritza afizio duen Itsasondoarra

Gure herrian badira, azken urteetan bizitzera etorri diren herritar berriak; Niko da euretako bat. Hala ere, beregana gerturatu gara, daukan zaletasun bat azaltzeko: argazkilaritza. Horren inguruko azalpen eta esperientziak beste herritar guztioi ezagutaraziko dizkigu.

Sarrera moduan, irakurleak kokatze-ko, zein da Nicolas?

Orain dela hiru urte, etxebizitza zela eta, Itsasondora etorritako hogeita hamabi urteko mutil lasartearra. Lasarte inguruan, Donostiatik gertu dagoenez, etxebizitzaren prezioak izugarri igo ziren, eta horrela, herriz aldatzea erabaki eta Itsasondora etorri ginen.

Zein da zure lanbidea?

Ikasketa aldetik, goi-mailako modulua egina daukat Usurbilen eta hasieran Zumaian lan egiten nuen makina herramintekin; baina, etxebizitzaz aldatzean, lanez ere aldatu nuen, eta Olaberriaren dagoen Praxair enpresarentzat lan egiten dut, mantenimendu lanetan.

Baina zure lanaz gain, baduzu beste afizio edo zaletasunik?

Nire zaletasunik gustukoena argazkilaritza da, eta nire lanak uzten didan neurrian saiatzen naiz praktikatzen. Mantenimendu lanak oporrak "nahi" dituzunean hartzen uzten dizu eta hori egokia da nire zaletasunerako.

Noiztik datorkizu argazkilaritzarako zaletasun hori?

Hasieran, beste jende asko bezala, karretedun kamera konpaktu batekin hasi nintzen lagun koadrilan, urte amaieran, bidaietan... argazkiak ateratzen, eta pixkanaka argazki horiek hobetzeko irrika sortzen joan zitzaidan.

Ondorengo pausoa?

Lagun batek Ricoh markako Reflex argazki kamara bat eskaini zidan prezio onean (bosgarren eskukoa) eta seizortzi urtez berarekin ibili nintzen. Gainera, momentu horretan Indiara bidaiara egiteko aukera izan nuen, eta argazki ikusgarriak ateratu nituen,

beraietako politena Taj Mahal eraikinarri ateratakoa; etxean daukat argazkia handiagotuta.

Eraikinei ateratako argazkiak gustukoak dituzu?

Niri argazki ederrak gustatzen zaizkit: eraikinak, paisaiak... eta hauek handituta ikustea ere bai. Gustuko dut argazki hauek etxean edo lagunek izatea.

Lagunekin kontaktzen duzu?

Bai, gainera sei ezkontzatan parte hartu dut, bigarren argazkilaria bezala, eta lagunek esan didate nahiago izan dituztela nik eginiko argazkiak. Gehienbat, argazkilaria profesionalen argazkiak aurrez presatukoak dira, eta nik ateratzen ditudanak, zerbait naturalagoak dira.

Ezkontzetan argazkilaria profesional bezala aritu zara?

Behin bakarrik eta nahikoa. Hamar argazki-film eta lauhun argazki ateratu nituen, eta ez nuen hainbeste disfrutatuta.

Inoiz pentsatu duzu honetara dedikatzea?

Behin edo behin pasatu zait burutik, baina behin profesional bezala hasten zarenean lanean, gauzak derrigor egin behar dituzu, eta nazka hartzen diezu eta ez duzu gozatzen. Hori bera gertatu zitzaien lagun bat ezagutzen dut.

Beraz, 20 urterekin argazkilaria sena pizten hasi zitzazun?

Pixkanaka, bidaiatzen hasten zara eta ez zara konformatzen argazki normalekin, horrela nire Reflex kamerak aukera ematen zidan, manualki, kontrolatzeko argia, denbora, enkuadrea... eta nik nahi dituzun argazkiak lortu nitzakeen. Nire asmoa zen argazki polit hauek bidaiaren horien orogarri bezala gordetzea.

Azalduko al zeniguke Reflex Kamera horren funtzionamendua?

Reflex kameretan fotometro bat agertzen da eta horrek emandako informazioarekin, diafragma eta abiadura ajustatzen dituzu. Fotometroak daukazu argia neurtzen laguntzen dizu. Horrez gain, oso garrantzitsua da, erdaraz esaten den "Profundidad de campo" edo enfokea, argitasun asko dagoelako asko irekiz gero, gauza bat enfokatzeko duzu, aldiz, guztiz itxiz gero dena enfokatzeko da. Hemen dago argazkilaria batek erabili dezakeen teknika bat, bestea abiadura izan daiteke; horrela, argazkilaria bakoitzak segun zer transmititu nahi duen, jolasteko aukera dauka. Azkenean, hemen dago argazkilaritzaren artea, argazkilaria ezberdinek gauza bera ikusita (demagun liburu bat), irudi ezberdinak ateratzen dituzte.

Kameraren artean ezberdintasunik?

Kamera baten gorputzak asko balio dezake eta objektiboak garestiagoak dira. Horrez gain, segun zein ingurutan mugitzen zaren, "pijokeri" ugari dago eta material ikusgarriak daukazazu, baina askotan gehiegizkoak.

Elkarteren batean sartua zaude?

Canonistasen egona naiz. Elkarte honetako argazkilariak estatu eta probintzi mailan mugitzen dira eta Rally fotografikoak egiten dituzte motibo ezberdinak direla medio (eraikinak, eskulturak, natur parkeak...).

Lehiaketak egiten dira?

Jymkana deitzen direnak, adibidez. Gai bat ipintzen da (izua, kasurako) eta argazkiak ateratzen dira. Askok baloratzen da argazkien kalitatea. Aurkitu dezakegu, baita ere, "Trituradora" izeneko atala; bertan, argazkiei akatsak ateratzera dedikatzen dira.



Haurdunaldia



Intsentsu



Temple Bar (Dublin)

Parte hartu duzu horrelako lehiaketan?

Lasarteko Manuel Lekuona lehiaketan parte hartu nuen eta Lasarteri buruzko argazkiak aurkeztu behar ziren. Kasu hartan, argazki-bilduma onenaren saria irabazi nuen, baina argazki eder asko gabe geratu nintzen.

Zer baloratzen da argazki batean?

Esate baterako, pertsona baten erretratu ateratzen duzunean, ez da erdian ipini behar, pixkat baztertuta baizik. Mugimendua transmititu nahi baduzu, argazki kamerarekin objektuari jarraitu behar diozu, horrela objektuaren atzeko irudiak difuminaturik azalduko dira, mugimendu sentsazioa lortuz. Argazkilaritza artea da eta pertsona bakoitzaren ikuspuntua ezberdina da argazki bat baloratzerakoan.

Pentsatu duzu zure argazkien erakusketarik egitea?

Ez, nire ustez ez daukat erakusketarik egiteko mailarik.

Zure argazkietan gai konkreturen bat jarraitzen duzu?

Gaiari baino gehiago, inspirazioari jarraitzen diot. Aurtengo udaberrian, adibidez, lora asko izan dira eta loreei argazkiak ateratzen ibili naiz.

Norbaiten eraginik izan duzu?

Ez, nire kabuz ikasten aritu naiz, beste argazkilarik batzuekin kontaktuan eta Internet zerbait erabilia.

Noiz eman zenuen kamera digitalera pausoa?

Beno, ikusik azken urteetako bilakaera, mundu digitalera pasatu nintzen, baina beti aukera izanik teknika manualak erabiltzeko. Nik aurreko eskolaketat daukat neure burua.

Lehenengo pausoak "Jose M^a Mellado" izeneko argazkilarik batek idatzirik liburu bati esker egin nituen. Bertan, aholkuak ematen dizkizu nola atera behar dituzun argazki digitalak, oso interesgarria da. Baina gero, Photoshopekin sartzen da eta ni ez naiz horren aldekoa.

Ez duzu gogokoa Photoshopa?

Ez zait batere gustatzen, argazkiak gehiegi manipulatu dira. Argazkilarik on batek behar den momentuan jakin behar du argazki ona ateratzen eta ez atera ondoren konpontzen. Argazki naturalak gustatzen zaizkit eta ez manipulatuak, argazkiaren benetako esentzia galtzen baita.

Digitalizazioak aurrerakuntzarik ekarri du?

Argazkilaritza merketu egin du, prozesua azkartu duelako. Argazkien kalitatea aldatu egin da; jendeak argazkien kalitatea kamera batek daukan pixelekin erlazionatzen du, baina pixelak baino garrantzitsuagoa da kameraren lentea, hau da, zoom optikoa. Hau kameraren espezifikazio teknikoetan begiratu behar da.

Argazkilarik profesional edo artistikoen kamera manual edo digitalak erabiltzen dituzte?

Artistikoen ez dakit, baina gaur egungo argazkilarik profesional guztiek kamera digitalak erabiltzen dituzte eta ondoren argazkiak Photoshopenekin manipulatu.

Etorkizunari begira, zer gustatuko litzazuke?

Nire kasuan dena boladaka joaten da. Zerbaitetik interesa sortzen zaidanean, lagun bati eskatu edo erosi egiten dut.

Material berri horiek ez dira zahar-tzen segituan?

Gero eta azkarrago, askotan berehala zaharkituak geratzen dira, inguruan ditugun beste tresna asko bezala. Azkeneko kamera berriek grabatu egin dezakete, eta aukera ematen dizu argitasunarekin eta abiadurarekin jolasteko.

Turismoa egitea gustukoa duzu. Nondik ibili zara?

Portugal, Italia, Finlandia, Irlanda, India, Turkia, Ingalaterra... Orain Alemaniara noa eta ondoren "Ruta de la Plata" bizikletaz egiteko asmoa daukat.

Eta orain bukatzeko hiru galdera motz.

Zer duzu gustuko Itsasondon?

Lasaitasuna. Hiri handietan pertsonen errespetua eta baloreak galtzen ari dira, eta hemen herri esentzia mantentzen da.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondon?

Zerbitzuak. Zenbait gauza lortzeko herritik atera beharra daukazu.

Inoiz izan duzun amets bat?

Gauzak iristen diren bezala hartu behar dira eta disfrutatu. Amets gutxi ditut, baina beraietako bat Japon edo Kanada bisitaztea izango litzateke.

Zabor bilketa sistema berria martxan

Ekainaren 14tik ez da zabor edukiontzi berderik ikusten gure herriko kaleetan, hala, zaborra biltzeko sistema berriari bide eginez. Sistema berria birziklapenean oinarritzen da eta hainbat ohituren aldaketa ekarri badigu ere, betiko erosotasuna mantendu nahi da.

Sistema berria abiatu berri den honetan, lehenik eta behin, herritarrek eginiko harrera ona eskertu nahi dugu: ESKERRIK ASKO hondakinak biltzeko modu berri hau martxan jartzea ahalbidetu duzuelako (bileretan parte hartuz, hezitzaileen azalpenak pazientziaz jasoz etab.).

Artikulu honen bidez, labur-labur, sistemaren nondik norakoak ohartarazi nahi dizkizuegu:

1. Ekainaren 14tik zaborrentzako edukiontzi berdea KENDU egin da. Birziklapenerako gainerako edukiontzi guztiak MANTENTZEN dira.
2. Zabor puntuetan EUSKARRIAK jarri dira, etxean jasotako ONTZI GRISA zintzilikatzeko. Ontzi horretara birziklatzen ez diren zaborrak botako ditugu.
3. Ontzi grisa astelehen iluntzetan bakarrik atera daiteke (19:00-22:00).
4. Materia organikoa, beira, papera, ontziak, arropa, pilak eta olioia (zaborren %85-90a), betiko moduan, dagozkien edukiontzietara botako dira, nahi duzuen egun eta orduan.
5. Pardelak (haur zein helduenak), astelehen, asteazken eta ostiral iluntzetan atera ahalko dira (19:00-22:00).
6. Traste zaharren zerbitzua ere lehen bezala mantentzen da: hileko 2. asteartean izaten da bilketa.

Azkenik, sistema berria IREKIA eta MOLDAGARRIA dela gogorarazi nahi dizuegu. Hasi besterik ez gara egin eta egunerokoak erakutsiko digu zertan hobe daitekeen zerbitzua. Zentzu horretan ezinbestekoa zaigu guztion laguntza: daukazuen kexa, ekarpen, proposamen eta abarrak luzatzeko deitu 902 090 071 telefono zenbakira (9:00-18:00) edo Itsasondoko Udalean egunero dagoen informazio bulegora zuzendu (12:00-14:00 eta 17:00-19:00). Guztion artean sistema egokitu eta Itsasondo hondakinen birziklatzean eredu izatea lortuko dugu eta!!



Posean



Loreak



Irakasle



Autokonpostaje tailerra





Gazteek emandako prentsaurrekoa

I. Itsasondoko Herri Eguna

Herri bat bizitzeak ez du esan nahi herria hilda zenik, herri bat bizitzeak lo zegoen grina eta nahia berpiztea adierazi nahi du; hartzaren loaldia amaitu da Itsasondoko ibarrean eta lanerako garaia da. Mila fronte daude zabalik, eta sarri bidean galduko bagara ere, ilusioa izango dugu bide lagun.

Mundu berri batekin amesten dugu egunez egun eta horren aldeko borrokari lotzen gatzazio ostiralero, arratsaldeko 19:00ak aldean. Esango du batek baino gehiagok egun jakin batean, ordu jakin batean, ez dela borrokarik egiten; borroka zerbait konplexuagoa da, egunerokotasunetik urratzen den bidea; baina, gure kasuan, astean zehar amets egiten dugu, begiak zabalik batzuetan eta itxita besteetan, eta lehen aipatutako hitzorduan gure ametsei forma ematen diegu mundu utopiko horretatik gizarteratzeko lanean.

Bidenabar, horrela sortu zen I. HERRI EGUNA. Balorazio oso positibo batekin agurtu dugun proiektua izan da eta inork espero ez zituen zifrak ibili ditugu mahai gainean. Beldur ginen geronen haunditasunean itoko ote ginen halako egun borobilaren ostean, baina berpiztu gara eta udako kanpaina abian da jadanik.

Aurrerantzean ere erantzun eta laguntza bera jasoko dugun esperantzan, eskerrik beroenak ITSASONDOKO GAZTE ASANBLADAREN partez.

Herri bat bizitzeak ez du esan nahi herria hilda zenik, herri bat bizitzeak lo zegoen grina eta nahia berpiztea adierazi nahi du; hartzaren loaldia amaitu da Itsasondoko ibarrean eta lanerako garaia da. Mila fronte daude zabalik, eta sarri bidean galduko bagara ere, ilusioa izango dugu bide lagun.

I.G.A. ■



Udal talde berria

1.

Udal talde berriari hurrengo legislaturan zer eskatuko zenioke?

2.

Non uste duzu inbertitu beharko litzatekeela herriaren onerako?

3.

Zer gaien inguruan gustatuko litzazuke informazioa jasotzea?



Karlos Iparragirre

1. Toki apropos bat haur eta gurasoak egoteko, neguan batez ere.
2. Segurtasuna plazatik pasatzen den errepide zatian; izan ere, altura berdinean daude, eta arriskua handitu egiten da, haurrentzat batez ere. Horren txikiak ez diren haurrentzat jolasteko espazio bat ondo egongo litzateke.



Mari Paz Moreda, Ainhoa Arteaga eta Mariaje Etxeberria

1. Haurrentzat jolas toki bat, futbola, saskibaloia... praktikatu ahal izateko.
3. Gu gurasoak gara eta guretzako garrantzitsua da gure seme-alaben heziketa. Hortaz, Guraso Elkartearen ekintzetan eta beste kultur ekintzetan hartzen dugu parte, batez ere.



Edurne Arbizu


1. Haurren parkea hobetu eta gune berdeak zaindu.
3. Gai guztiak dira garrantzitsuak. Ni jubilatua naiz, eta horregatik oso interesatuta nago gizar-te gaitan.



Itsasondo, près Tolosa (Province de Guipuzcoa). — Dessin de Gustave Doré.

Garai bateko Itsasondo

Erromantizismoak bidaiari bihurtu zituen hainbat intelektual eta artista, jakin-minez irrikan, inguru exotikoen atzetik. Mundu magiko horren parte egin gintuzten euskaldunok iparraldetik zetozen bidaiariek. Inguru honetan kokatu behar dugu Gustave Doré grabatzaileak 1862an Charles Davillier idazlearekin eginitako biran marraztu zuen paisaia hau. XIX. mende bitxi honetaz gehiago jakin nahi izanez gero, Zumalakarregi museoak duen web orria bisitatu dezakezue helbide honetan:
<http://www.albumsiglo19mendea.net/index.php>



Gustave Doré

Bistan dago XIX. mendeko Itsasondo honek zaharrenek ere ezagutu duten herriarekin zer ikusi handirik ez daukala. Azpialdeko izena irakurtzeak ematen digun harrotasun taupadaz aparte, gure herriarekin zer ikusi handirik ez duela pentsatu dezakegu. Egileak, garai hartako irudigileek ohi zuten bezala, begien aurrean zuena eta irudimen sutsua dantzan jarriko zituela, ezagutzeko modukoa ez den irudia osatu arte.

Baina, egilea gurean izan genuen, Euskal Herriko paisaiak eta garai hartako hainbat jenderen erretratuen margoak hor daude. Eta, ordurako Europan ospetsua zen frantziar egileak, Espainiarantz egin zuen bidaia luze batean, gure herria nabarmendu egin nahi izan zuen, Euskal Herrian zehar ikusi zituen hainbat herrien eredutzat hartuz, beharbada.

Grabatuan bi edo hiru plano desberdindu ditzakegu; batetik, atzealdeko mendiak eta zerua bere hodeiekin. Garbi dago horiek ez direla gureak, edo ez gureak bakarrik, behintzat. Frantziako lautadetatik zetorren bidaiariari deigarria egingo zitzaion mendiak beti gainean zituen ibar estu batetik luze ibiltzea, eta hara hor nola irudikatu zuen, marko bezala Andoaindik hona ikusten den Ernioako soslai erabiliz.

Mendien itzalean eliza gailentzen da eta bere lekuan dagoela antzematen badugu ere, ez hainbesteraino bere egikera. Gehiago dirudi aurrean zuela marraztutakoa zirriborroan geratu zitzaiola eta xehetasunak gero erantsitako zizkiola. Hala ere, hor ditu bere horma altuak eta orain atzealdean duen ate nagusia inguratzen duen pendizea.

Baina aurrealdeko planoan itsasondotar aitortu gaitzake, artistak, bere dohainen onena jarriz, mendeetan zehar moldeztatutako kultur-paisaiaren espiritua agertarazten baitigu. Zubia da nagusi eta herria bere inguruan eraiki zuten, denen aurrean dagoen leiho zabalekoak garbi utzi nahi duen bezala. Mendeetan zehar Europako bidea ziurtatu zuen zubia, behin eta berriro urak eraman eta berreraikitako zubia. Itsasondo, bere jatorri duen zubiari begira. ■

Iñaki Aizpuru



Alvaro eta Pablo elkarrizketak errodatzen.

Estreinaldia Itsasondon

Orain aste gutxi, gure Master amaierako lana izango zen dokumentala aukeratzea zorarena iruditzen zitzaigun; baina, bizitako esperientzia kontuan izanik, zera esan genezake: barkaezina ez egin izana izango zatekeela. Ezbairik gabe esan dezakegu egindako aukera kazetaritza munduan abiatzeko modu ezin hobea izan dela.

Dokumentalaren ideia, Madril eta Kataluniako komunikabideek SORTUren ilegalizazioaren inguruan esandakoak entzun ondoren bururatu zitzaigun. Sinestezina egiten zitzaigun PSOE eta PPren estatutu berberak zituen alderdi politiko bat ilegalizatzeko bidean zirela ikustea. Kazetaritza Master bateko ikasle soil batzuk izanik, bagenekien askatasun osoa izango genuela, editore eta medioen loturetatik aske, Euskal Herrira bertaratu eta zuzenean ikusten genuena adierazteko. Gure asmoa zen Euskal Herriko herri batera joan eta bertako herritarrekin zuzenean hitzegitea; hiri handi eta politikoengandik urruti, herritar xumeen ikuspuntua jaso nahi genuen.

Suposatzen dugu honezkero buruan jiraka izango duzun galdera zein den... Zergatik aukeratu genuen Itsasondo? Euskalduna den eta ezker abertzaleak gehiengo duen herri baten historia kontatu nahi genuen. Politikariak "kutsatu" bezala izendatu dituzten herritarren iritzia jakin nahi genuen, bai baikenekien esateko makina bat kontu izango zituztela. Horrela, gure asmoa normalean komunikabideetan ahotsik ez dutenen bozgorailu izatea eta bertatik bertara errealtatearen beste bertsio bat ezagutzeari zuzenean erantzutea zen. Beraien ideiak defendatzeko bozkatu ezin izango zuten 200.000 herritarren ahotsa izan nahi genuen. Laburbilduz, Madrilan erabakitako trikimailu politiko baten baitan bere Udalaren agintea galtzeko zorian zen herri baten bizitzan murgildu nahi genuen.

Gipuzkoako hainbat udaletara makina bat e-mail bidali ostean, erantzuna Itsasondoko udaletik jaso genuen. Itsasondon ongi hartuak sentitu izan gara bertaratu ginen unetik. Iritsi bezain pronto Arbel-aitz elkartean egin zen bertso-afarira gonbidatu giintuzten; guretzat sekulako esperientzia izan zen. Ez dugu dudarik dokumentala egiten aste pare bat gehiago luzatu izan bagina, dokumentalaz gain kiloto batzuk ere eraman- gogotzea bultzatzea.

Egindako harrerak are gehiago motibatu gintuen. Dagoeneko ez zen unibertsi- taterako lan bat burutzeko istorio bat kontatzea soilik; hezur-haragizko gizon- emakumeak ezagutu genituen, eta beraien ahotsa izan nahi genuen. Dokumentalaren helburua estetikoki ederra eta ondo muntatutako istorioa izate- tik haratago zihonan; hasieratik ez zilegi- tzat jo genuen egoera baten salaketa dokumentu bilakatzea nahi genuen.

Kamerak piztu eta lanean hasteko unea iritsi zen. Orduetik aurrera dena abia- da bizian igaro zen. Astebete eskasean 25 elkarrizketa eta 250 bideo grabatu genituen. Egun osoa gora eta behera pasatu genuen, kamerak uneoro bizkar gainean genituela. Gerturatzen zen herri- tar orori galderak egin eta gure aurretan igarotzen zen guztia grabatzen genuen. Atentzioa eman digun zerbait: ez da sinestekoa zenbat ziklistak zeharkatzen duen herria uneoro. Kaxintan pasatako momentuak eta Urkiara egindako joan etorriak ere ez zaizkigu berehalakoan ahaztuko; ezta Itsasondon ginen bitarte- an Errealak Barçari irabazi zioneko ere; eta are gutxiago azkeneko gauean gutari- ko batek tonbolan irabazitako aspirado- ra-robot. Ikusten duzueneko, pasadizo ugari bizi izan ditugu eta denak onak, beno den-denak ez: AHTko lanetako segurtasun zaindarien ez gintuzten gogo- onez hartu. Lerro hauen bidez gure eske-

rrona agertu nahi genieke Danel eta Xabiri, beraien pazientziagatik; Jorge eta Ikerri, gu hain ondo elikatzeagatik; eta baita Jesusi ere, ez baitzigu erronda bakar bat ordaintzen utzi, eta horrek benetako kataluniar sentiarazi gintuen.

Egitasmo honekin lorturiko emaitzek gure asmo guztiak gainditu dituzte. Izan ere, dokumentala Katalunia osoan zabaltzeko aukera izan dezakegu. Oraingoz, CUP partidu independentistak Sitges-eko egoitza eskaini digu dokumentala proiektatzeko, eta litekeena da egitasmoa Katalunian dituen gainontzeko egoitzetara zabaltzea. Gure asmoa, berandu baino lehen Itsasondora itzuli eta bertan guk egindako lana herriari aurkeztu eta herri- tarren galdera eta iritzia jasotzea da. Desio genuke guk eginiko dokumentala Itsasondo herriaren kultur ondarearen parte bilakatzea eta bizitako egoera politiko bidegabe baten ispilu izatea. Zorionez, Bildu legeztao ondoren, gure dokumen- tua iraganekoa eta errepikatzea espero ez dugun errealtate baten ispilu eta oroigarria izatea nahi dugu. Euskal Herriak notia izateari utziko dion eguna hurbil izatea espero dugu bihotz-bihotzez.

Betira arte Itsasondo!!!

Alvaro, Edu eta Pablok idatzia



Lantaldea elkarrizketak: Edu (ezkerretara), Pablo (erdian) eta Alvaro eskuinean.

Álvaro Fernández Álvarez, Barcelona 1989. Ikus-entzunezko komunikazioan graduatua da Brunel University-n (Londres, Ingalaterra). Masterra amaitzean, kazetaritza praktikak "La Vanguardia" egunkariaren magazinean egingo ditu.

Eduardo Sotos Camps, València 1984. Historian lizentziatua da Valentziako Unibertsitatean. Masterra amaitzean, praktikak "El Periódico de Catalunya" egunkariaren multimedia atalean egingo ditu.

Pablo Tallón Ojeda, Terrassa 1987. Enpresen Administrazio eta zuzendaritzan lizentziatua, Unibersitat Pompeu Fabra-n. Masterra amaitzean, praktikak SER irratiaren Bartzelonako egoitzan egingo ditu.



Lanak antolatzen

Biodibertsitatearen zaintzan herritarren parte-hartzea sustatuz

Aski ezagunak dira jadanik Itsasondoko Udala Biodibertsitatearen alde aurrera eramaten ari den ekimenak. Aurreko aleetan azaldu bezala, 2008an eman zien hasiera Udalak ondare naturalaren kontserbazioaren aldeko ekimenei, *Itsasondoko Ingurune naturalaren eta landa-eremuaren kontserbaziorako ekimene I. fasearekin*. Egun, proiektu beraren *II. fasea* amaitzeko hilabete eskas batzuk falta dira.

Proiektu horren baitan, udalerrirako berritzaileak izan diren ekimenak aurrera eraman dira: Udala jabegotzako lursailetan zuhaitz eta zuhaixka espezie desberdinen landaketak, habitat autoktonoen berresku- rapenerako lur-sail berrien erosketa, landa- eremuaren zaintza eta hobekuntzarako udalerrirako baserritarrekin elkarlana, flora exotikoaren erradikaziorako lanak, Itsasondo- doko ondare naturala ezagutzeko irteera eta hitzaldiak, etab.

Ekimen horiei jarraipena emateaz gain, aurtten biodibertsitatearen zaintza eta hobekuntzarekin batera herritarren parte- hartzea sustatu eta indartzeko beste hain- bat ekimen aurrera eraman dira. Horietako bat martxoaren 25 eta 26ean ospatutako *Itsasondoko Zuhaitz Eguna* izan da. Zuhaitz egun horretan herriko txikienek gure lurral- deko zuhaitzak ezagutu eta landatzeko aukera izan zuten aitzur, pala eta euren eskuez baliatuz. Denera 80 zuhaitz inguru landatu ziren Urkia auzoa eta herri-gunea-

ren artean, horien artean haritzak, lizarrak, gereziendoak eta urkiak landatu ziren gehien bat.

Herriko txikienek parte hartu eta lagundu egin ahal izan duten ekintza horretaz aparte, herritarren ingurunearekiko sentsibilitate- a eta arduraren handitzearen, ekainaren 9an *Landare exotiko inbaditzaileak: zer dira eta nola erradikatu?* hitzaldia eman zen Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailaren eskutik. Hitzaldi horretan, udal- rrian zentzu honetan egiten ari diren ekimenen berri emateaz gain, gonbidapen berezia egin zitzaion euren lorategietan gisa horretako landareak dituzten jabe- ei eta bertan lorategietako landare exotiko inbaditzaileak modu errazean erradikatze- ko argibideak azaldu eta idatziz banatu ziren.

Azkenik, Itsasondorako berria izango den ekimen berri bat martxan jartzeko lanean ari da Udala. Ekimen berri hori erleen zain- tzan datza. Hau da, Udalak bere jabegotza- ko lursail desberdinetan hainbat erlauntza ipiniko ditu, erlezain boluntarioen bitartez kudeatuko direnak. Erle horiek landatu berri diren zein inguruan aurkitzen diren espezie desberdinen polinizazioan lagundu- ko dute eta erlezainak horietatik ezta lor- tzeko aukera izango du. Esan bezala ekimen hori Udalarentzako berria izanik, oraindik horretan lanean ari da, baina Udararako erle kutxak Udala jabegotzako lur-sailetan ipintzea izatea espero da. ■



Familia ugaria: kontzeptua eta laguntzak

Familia ugariak honako kide hauek dituzten familiei deitzen diegu, besteak beste:

- Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten aurreko ahide bat edo bi, komunak izan edo ez.
- Aurreko ahide bat edo bi, bi seme-alabarekin, komunak izan edo ez, baldin eta gutxienez horietako batek %33tik gorako minusbaliotasuna badu edo lanerako ezindua badago.
- Bi seme-alaba, komunak izan ala ez, dituzten bi aurreko ahide, biak minusbaliatuak badira, edo gutxienez, haietako batek %65eko edo gehiagoko minusbaliotasun gradua baldin badu, edo lanerako ezindua badaude.
- Aita edo ama banatuak edo dibortziatuak, hiru seme-alaba edo gehiagorekin, komunak izan ala ez, nahiz eta famili unitate ezberdinetan egon, betiere bere ekonomia-mendekotasunean baldin badaude, nahiz eta ez bizi ezkontza-egoitzan.
- Bi seme-alaba dituen aita edo ama, baldin eta beste gurasoa hil bada.

Kasu gehiago ere badaude, eta horretarako 40/2003 Legea, azaroaren 18koa, Familia Ugariak Babesteari buruzkoa eta 40/2007 Legea, abenduaren 4koa, Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzkoa kontsultatu daitezke. Hala ere, familia ugarien titulua eskuratzeko informazio gehiago behar izanez gero, 943-112511 telefonora deitzea edo Itsasondoko Udaleko gizarte zerbitzuetara gerturatzea gomendatzen da.

Familia ugaria osatzen duten kideek hainbat laguntza dituzte administrazio publikoaren eskutik, hala nola, lana eta familia bizitza bateragarri egiteko aukerak, kultura arloan beharrezkoak, ibilgailuen matrikulazioan zerga murrizketak, Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoak, garraioan deskontuak, hezkuntzarako laguntzak e.a.

Itsasondoko herritarrak izan eta familia ugaria direnek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ere laguntzak dituzte. Zehazki honako hauek:

- 3 seme-alaba: %60ko hobaria.
- 4 seme-alaba edo gehiago: %90eko hobaria. ■



Zegama-Itsasondo topaketa

Maiatzaren 6an Zegamako Gaztelekuko gazteen bisita jaso genuen. Emantzipazio programaren barruan, gazteleku bakoitzak bere herrian ekitaldia egin ostean, beste herri batera joan behar zuen, azaltzera zer egin zuten. Zegamakoek Gazte Eguna ospatu zuten Zegaman, eta bertan egin zituzten herri-kirolak egitera etorri ziren Itsasondora.

Herriko nerabe eta haurrek parte hartu zuten eta giro ona egon zen. Bertan, zaku-karrerak, koxkolak biltzea, asto karrerak, sokatira... egin zituzten.



Aste Santuko ekintzak

Pazko Astean, Itsasondoko Gaztelekuko atea irekita egon dira, eta bertan, hainbat ekintza egin dira. Horien artean, Tolosako Usabal kiroldegira egin zen irteera eta bertako igerilekuaz gozatu eta skate parke berria ezagutu eta erabili ahal izan zuten. Horrekin batera, pintxo lehiaketa ere egin zen Gaztelekuan. Nerabeek osagarri desberdinekin pintxoak egin zituzten eta gero denen artean goxoa aukeratu zen.

Aste Santuko ekintzetan 11 nerabek parte hartu dute orotara, eta antolatzaileak gustura daude ekintzekin eta partehartzearekin. ■



Itsasondo 1931-Goierri 2011: Autoderminazioa gero eta argiago



17 Herrietako udal agintariak



Agintariak eta senitartekoak

Apirilaren 18an, aparteko ekitaldia izan genuen Itsasondon, "Itsasondo 1931-Goierri 2011: Autoderminazioa gero eta argiago" goiburupean eta Nazioen Mundua ekimenak bultzatuta. Arrazoia izan zen 80 urte lehenago, 1931ko apirilaren 18an, hain zuzen ere, Itsasondoko Udalbatza eratu berriak autoderminazioa aldarrikatuz adierazpen ofiziala egin izana. Euskal Herrian honelako adierazpen ofizial bat egiten zen lehen aldia zen, eta gerora, euskal politikagintzaren zutabe-etako bat izan bada ere, garai haietan ez zen batere ohikoa autoderminazioaz hitz egitea, kontzeptu politiko berria baitzen.

2011ko apirilaren 18an, beraz, 80 urte betetzen zirenez Itsasondoko Udalbatza eratu berriak autoderminazio ariketa planteatu eta aurreneko aldiz adierazpen ofizial bihurtu zuenetik, eta egun seinalatuaren oroimena plazaratzeko, Goierriko 17 alkate-zinegotzi elkartu ziren Itsasondon erabakitze eskubidearen alde antolatu zen ekitaldian.

Mikel Aramendi kazetari eta analista

politikoak egin zituen ekitaldiaren aurkezle lanak eta honako herrietako alkateek parte hartu zuten ekitaldian: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Olaberria, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain. Mutiloa eta Ordizia zinegotzi banak ordezkatu zituzten. Ekitaldian, duela 80 urteko adierazpena gogora ekartzeaz gain, iaz Goierri beheko udalbatza guztiek onartu zuten Igartzako Manifestuarekin lotu zuten eskakizuna.

Patxi Plazaolak, Beasaingo alkatea, irakurri zuen Larraitzen goierritarrek berretsi zuten agiria eta Danel Etxeberriak, Itsasondoko zinegotziak, irakurri zuen 80 urte lehenago Itsasondoko udalbatzan irakurritako idatzia.

Ondoren, Bigarren Errepublikako Itsasondoko aurreneko udalbatza osatu zuten zinegotzien ondorengoak omen-du zituzten. Orduan alkate zen Manuel Sarasolaren seme Jokin Sarasolak jaso zuen oroigarria, 1931ko apirilaren 18ko akta zatiaren eta Igartzako Manifes-

tuaren kopia dituen. Jokin Saralorekin batera 80 urte lehenago Itsasondoko adierazpena sinatu zutenen senitartekoak izan ziren ekitaldian.

Honako zazpi itsasondoarrak ziren, 80 urte lehenago, udalbatza osatzen zutenak: Jose Manuel Sarasola Zalakain (alkatea), Luciano Aranburu Mujika (lehen alkateordea), Francisco Mari Garmendia Garmendia, Jose Francisco Otegi Urretbizkaia, Jose Vicente Sarasola Garmendia, Francisco Ibar-guren Senperategi eta Jose Luis Arbilla Gaintzarain.

Ekitaldi xumea baina hunkigarria izan zen Itsasondoko Karreapean bititako; batetik kolore politiko ezberdinetako alkate eta zinegotziak autoderminazio eskubidearen aldeko aldarriaren inguruan biltzea lortu zuelako, eta bestetik, 80 urte pasa ondoren, autoderminazioaren alde agertu ziren Itsasondoarrak oroitu eta egindakoa lana eskertzeko aukera izan zelako. Hori bai, oroimen eta omenaldi hoberena, 80 urte baino lehen autoderminazioaren aldarrikapena errealitatea bihurtzea. ■



10.30 Mosaiko Erraldoia

Harremanetarako:
652 775 923 649 311 757
nazioenmundua@nazioenmundua.net














10. Ibilbidea

Itsasondo-Sarasola- Errezola-Itsasondo

Iraupena: 75'
Ibilbidea:
 Itsasondo-Paimmasa: 10'
 Paimmasa-Iturriotz: 15'
 Iturriotz-Sarasola: 10'
 Sarasola-Hilerria: 10'
 Hilerria-Errezola: 10'
 Errezola-Bengoetxea: 10'
 Bengoetxea-Itsasondo: 10'



Deskribapena: Gaurko ibilbidea laburra da. Tren geltokitik Iturriotz aldera joango gara, bidean Paimmasa igaroz. Bertara iristean, baserria inguratu eta atzealdean dauden eskaileretatik Sarasola baserrietara iritsiko gara. Hemen, Alzagatik datorren pistari jarraituko diogu. Hilerria pasatzean, intxaurrondoren ondotik eskubitara doan bidetxurra hartuko dugu. Bertatik, Errezola baserria iritsiko gara.

Beharrezko bidea hartu eta segituan eskubiko bidea hautatuko dugu. Bide honi jarraitzea besterik ez dugu izango herrira iristeko. ■



Paimmasa



Iturriotz



Sarasola




Sarasola



Itsasondo




Miradorea




Alzagako hilerria



Intxaurrondoa



Errezola



Bengoetxea



Euskal Herrian teknologia punta-puntan



Apirilean egin zen Gipuzkoa Encounterra, Gipuzkoan egiten den informatika zaleen topaketa. Aurten bosgarren edizioa izanik, informatikan dauden azkeneko aurrerapenak, berrikuntzak eta dendatan oraintxe bertan ikus daitezkeen nobedadeak jakin ziren.

Topaketa Tolosan egiten da. Bertan, nobedade teknologikoak ikusteaz gain, joko lehiaketak, arte digitala, programazioa eta hainbat ekitaldi egiten dira. Topaketak hiru egun irauten du, etenik gabe. Bertan, parte hartzaileek beren programak, pelikulak, musika eta hainbat datu beste parte hartzaileekin konpartitzen dituzte.

Informatika eta telekomunikabideko denda eta promotore askok erabiltzen dute topagune hau beraien produktu berrienak aurkezteko eta probatu ahal izateko.

Gipuzkoa Encounterrean 500 bat lagun sartzen dira. Baina, topaketa hau

esan dezakegu beroketa bat dela, hau da, aperitibo bat besterik ez. Zeren eta, Tolosako topaketa antolatzen dutenek, Estatu mailan eta Europa mailan egiten den topaketa informatiko garrantzitsuenaren antolatzen dute. 5.000 laguneko Euskal Encounterra ospatzen da urtero Barakaldoko BECen.

Bertan, joko, informatika, telekomunikabide eta hainbat marka joaten dira euren nobedadeak aurkeztera, benetako azoka teknologikoa sortuz. Horrekin batera, milaka ekitaldi eta lehiaketa egiten dira parte hartzaileentzako.

Logitek, Blizzard, HP, Beep, Euskaltel, Apple etab. ikus ditzakegu. Horretaz

aparte, Europako jokalaririk onenak bertan elkartzen dira, munduko arte digitaleko lehiaketa garrantzitsuenetako bat ospatzen da eta milaka eta milaka gauza gehiago.

Arraroa irudituko zaizue, baina topaketa hauetara jende normala joaten da, kalean topa dezakezun jendea bezalako. Bakoitza bere gustu eta afizioekin, baina puntu amankomun batekin: informatika.

Argazkietan ikus dezakezue nolako ekitaldiak diren; hainbeste pantailak belhurtzen du, egia esan.

Hurrengo zenbakira arte. ■

Aspaldiko txirrindularitza

Bizikleta beti izan degu bear-bearrezkoa itsasondotarrak. Aspaldiko kontua da ori. Orregatik ez da arritzekoa txirrindularitzako griña sortzea gure artean, bai orain baita lenago ere. Jexus Lete idatzi zuenez, orain 90 urte, 1921ko udaberrian, Donostian izan zan 15 urte bekoentzako Gipuzkoako txapelketa. Gure erritik bere anai zarrena, Joakiñek, artu zuen parte eta 13 urteko mutiko orrek irabazi zuen txapelketa.



Geroago, 1930garren urtean, asi ziren erriko pestatan bizikleta karrera jartzen. Karrera au errikeentzako zan bakarrik eta ibilbidea, iru aldiz Ordiziara eta beste ainbeste aldiz Legorretara izan zan. Zelotxoko Patxik irabazi zuen. Beste iru urtetan jarraian ere jokatu zuten eta irabazleak Juan Jose Rezola eta Jauregui, lyoyarra izan ziren.

Ziklo-krossa lenengo aldiz 1934en jokatu zen. Garaille Baztarrika ataundarra izan zan eta bigarren Donostiko Iturri ospetsua.

Kamiñoko karrerakin jarraituz, 1935ekoan Gipuzkoako baztar guztietako txirrindulariak artu zuten parte eta bukaeran berrogei bat izango ziren batera iritsi zirenak Irabazlea Jesús Diez pasaitarra, eta bigarren Teodoro Lete erritarra. Multzo ortan iritxi zan baita Jose M^a Aristrain ere, gerogo fabrika andi bateko nagusi ospetxua izango zena. Bi oiek, Itsasondoko Batzokiko ekipokoak zirenez ekipoka zegoen saria irabazi zuten. Bigarren Ernanikoak gelditu ziren.

Urrengo proba 1941 urtean egin zan, erritarrentzako bakarrik. Irabazlea Juan Jose Rezola izan zan beriz ere, parte artzaillerik zarrena. Baziren ordurako gaztegoak ere, karreran, alpagata txurik jantzita linimentua zer zanik etzekitenak ere. Ondo preparatuta alajaiña!

Ondoren geldialdi bat izan zan eta 1949n ekin zitzaion berriz, ordun federatu gabekoekin. Urrengo urtean, berriz ere, ziklo-krossa eratu zan eta Zaldibiko Salaberria izan zen txapeldun.

Urte berean, 1950en, pausu andi bat emen zan I CAMPEONATO VASCO-NAVARRO DE AFICIONADOS eratuz eta ondorengo urte batzutan jarraitu zuen txapelketa orrek. Orrela bada, lau probintzietatik etorri ziren txirrindulariak eta lenengoari kopa ikusgarri bat eman zitzaion. Kopa ori Ministro de Asuntos Exterioresena zan, beasaindar ezagun batek egiten bait zuen lana an eta aren bitartez eskuratzen genduen. Kategori orretako karrera bat eratzeko lan aundiarena dirua biltzea izaten zan, eziñ osatu, baña ain gogoz artzen zan lan ura, erriko jendek oso ondo erantzuten zuen eta kostata bazan ere beti aurrera egiten zan.

Garai artan, urtean, bi karrera egiten ziren. Andramaritakoan lizentzia zutenak izaten ziren eta "luistarren" karrera, gabekoak. Azken au xumegoa izaten zan santuaren egunean. Xumeagoa izanagatik bazitun karrera onek xebebrekeriak. Egun batean 11 txirrindulari iritxi ziren batera. Zortzi sari ziren izendatuta eta aurreneko lauak zein ziren sailkapena egin zen baño beste guztik ezin bereiztu eta danak pillan jarri ziren sarik banatzeko. Guztira 50 pezeta banatu bear ziren zazpi laguneren artean eta bat sobratu noski. Apalategi ataundarra oiuka asi zan uru izan zala bosgarrena eta ari emateko egiñez. Ala izan edo ez, eman zitzaion pezeta ori eta ixildu zan. Gaurko xentimoa baño gutxiagotik oiuka alajaiña!

Beste urte batean, Juan Iñaki Sarasola errira etorri berria zan eta automobilla

ere berria ekarri zuen. Karrerako eskeiñi zigun eta guk gustora artu. "JURADO" jartzen zuen pankarta bat jarri diogu aurrean eta umea zapata berrikin bezala bagoaz gure automobil berriarekin. Ontan abiatu eta bereala, Ikaztegiatan, nunbait argiren bat piztu zitzaion eta gelditzen du autoa gure txoferrak. Aurreko tapa ireki eta askatzen du uraren tapoia eta onek alde egiten dio, goraka, metro batzuk eta nun asten dan ura irakiten borborka atereaz. Eskerrak etzuen iñor kopetan jo bidean!. Zer gertatu zitzaion? Gure pankarta ondo erantsita jarri genduela motorrera aizerik sartzen ez uzteko moduan!.

Ondoren, urte askotan iraun du Itsasondon karrerak ta etekiñak ere onak izan dira. Itsasondotar txirrindulariak asko izan dira erritik kapo ere ezagunak egin zirenan eta erriaren izen ona aupatu zutenak. Amar baño gehiago izan direnez ez noa izenik jartzera. Azkeneko urtean txirrindularitza ogibidea izan dutenak ere badira eta erria ezaguna egin dutenak mundu zabalean. Auek ain aspaldikoak ez direnez, txirrindularitza maite duten, gaurko gazte treben eskuetan uzten det auen aipamena. Eskerrak gazte auei gaur ere ain karrera eta ziklo-kross ederrak eskaintzen dizkigute. Zuen esku uzten det bada eginkizun ori, nik baño obeto azalduko dituzue kontu oiek eta. ■

Jubilatu bat

Bertso afaria

Martxoaren 25ean Korrikaren inguruan bertso-afaria antolatu zen. Oso ondo atera zen guztia, giro alai eta aparta sortu baitzen. Katalanak ere izan ziren herritarrekin batera, bi bertsolarien ondoan. Ederto afaldu eta edan genuen bertsoak adituz. Eskerrik asko etorri zineten guztioi.



Antzerkia

Apirilaren 1, gaueko 10:00 Azpeitiko Lakrikun antzerki taldeak, "Prest gaude" antzezlanaren aurkezpena, eskolako aterpean. Ederki pasatu genuen...



Dantzari Eguna

Aurtengo ikasturtean, herriko nerabeek euskal dantzak ikasteko aukera izan dute. Irailean herritar gazte talde batek eginiko eskaerari erantzunez, larunbatetan eta ordu eta erdiz, euskal dantzak ikasteko ikastaroa martxan zen. Bertan, bederatzi gazte eman zuten izena, eta larunbatero-larunbatero elkartu dira, eskolako aterpean, Ainara irakaslearen zuzendaritzapean.

Gazteak oso gustura ibili dira eta ikasi ere, asko ikasi

omen dute. Maiatzaren 28an, herriko hurrekin dantza emanaldia egin zuten herriko plazan. Ekitaldia oso polita gelditu zen eta herritarrak bertan izan ziren emanaldia ikusten eta beraien lana txalotzen.

Ikastaroa bukatu da jadanik, eta egindako balorazioa oso ona izan da, partaideak oso gustura ibili direlako eta asko ikasi dutelako. Datorren urtean ikusiko da zer egin, batzuek jarraitzeko interesa agertu dute eta.



Korrika

Apirilaren 13an, Korrika 17 igaro zen Itsasondotik. Goizeko 09:30ak aldera igaro zen, eta hainbat herritarrek eta eskolako hurrek ongietorria eman zioten.

Apirilaren 15ean, berriz, Korrika txiki ospatu zen. Aramatik abiatu eta Itsasondoko plazan bukatu zen. Indarrak hartzeko, hurrek eta partehartzaile guztiek txokolatea hartzeko aukera izan zuten. Ondoren, herriko gazte taldeak antolatuta, herriko txikienek aulki eta zapi jolasean ibiltzeko aukera izan zuten. Eguraldi paregabea eta giro ezin hobea izan ziren, 2011ko Korrika txiki egunean.



Oriora Ibilaldia

Beste behin ere, IX. edizioa hain zuzen ere, goizeko 5ak uste baino lehen iritxi ziren. Hamaika lagun elkarrekin ginen plazan eta poliki-poliki ibiltzeari ekin genion. Hitzak bakan eta hankak arin, gorputzak eritmoa hartu ahala giroa berotzen hasi zen. Uste baino lehen ginen Zelatunen, bertan ohiko gosaria egin eta bigarren zatitari ekin genion. Nekea gailentzen zijoan baina giro paregabea eta helburua gertuago genuela jakiteak lagundu zigun. Beste behin ere lortu dugu, denak ginen Orion.






EL VALS LENTO DE LAS TORTUGAS

Katherine Pancol

"Los ojos amarillos de los cocodrilos" liburua jarraipena da. Protagonistak ama-alaba batzuk dira. Parisen bizi dira eta euren arteko harremana nola aldatzen den ikusi ahal izango da. Bigarren

alaba Londresera joan da ikastera eta haren abenturak kontatzen dira. Horrez gain, beste hainbat pertsonaia ere agertuko da liburu honetan, eta horietako bakoitzak asko izango du kontatzeko.



EL LEGADO

Katherine Webb

Erica eta Beth Calcott ahizpak dira, baina ez dituzte gauza asko amonarekin. Amonak utzitako etxe batera doaz oporrak elkarrekin pasatzera. Bertan, familiako historian atzeraka egingo dute, eta orain arte jakin ez duten historiaren

berri jakingo dute.



EL DESCUBRIMIENTO DE LAS BRUJAS


Deborah Harkness

Historian aditua den Diana Bishop-ek ez daki liburutegian aurkitu duen liburua mendeetan galduta egon den liburu bat dela. Liburu hau oso berezia da, eta liburutegian gauza arraroak gertatzen dira. Protagonista banpiro eta sorgin artean murgilduko da.

Itsasondoko udalak, irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina bat jarri du abian; "Eutsi liburu bat", uztailean egongo da martxan. Kanpaina honetan herriko zerbitzuek (Udaletxe, taberna, Mediki Etxe, jandari dendak,...) liburuak eskainiko dizkiete herritarrei, etxera eraman eta irakur ditzaten. Behin, liburua irakurrita, LIBURUTEGIRA itzuli beharko dituzte. Haurrentzako liburuak, helduentzako eleberririk, aldizkariak aurkitu ahal izango dira. Beraz, irakurri eta itzuli liburuak liburutegira, irakurmenarekin gero eta jende gehiagok gozatu dezan.

LIBURUTEGIKO OHARRA:

Itsasondoko liburutegian zerbitzu berria jarri da. Hain zuzen ere, astearte eta asteazken goizetan arreta zuzena eskainiko da 9:30etatik aurrera. Bertan, arduraduna izango da eta erabiltzaileek txartelak egiteko, zalantzak argitzeko, liburuak topatzeko edota libururua eskatzeko aukera izango du. Interesatzen den libururik ez balego, beste liburutegietatik ekartzeko aukera izango litzateke. Horretarako, astearte edo asteazkenetan, liburutegira gerturatu behar da. Horrez gain, liburutegiko helbidea luzatu nahi da, liburutegira gerturatu ezin duenak bere eskaera egiteko: liburutegi.itsasondo@udal.gipuzkoa.net.




ICE AGE 3

Hemen dituzu berriro ere "Izotz Aroa" eta "Izotz Aroa 2:Urtze Aldia" filmetako lagunak, historiaurreko abenturarik ikusgarrienan, adin guztietako ikusleentzat.

Oraingo honetan, Mannyk eta gainerakoek mundu galdu bat aurkitu dute. Mundu horretan dinosauro bitxi batzuk bizi dira, tiranosauru erretxin bat, Sidekin garbitu gabeko kontu bat daukana. Bestetik, Scrat txora-txora egin da dago Scrattekin, baina... zein dira Scrattekin benetako asmoak: Scrat bihotza lapurtzea, ala ezkurra lapurtzea?

"Izotz Aroa 3: Dinosaurioen Egunsentia" filmak zirrara handiagoa, tentsio handiagoa, eta barre-argara handiagoak dakartza familia osoarentzat.



LOTTE

Europako txoko batean, itsaso handi baten ertzean, herri txiki bat dago. Bertako herritarrei aparailuak asmatzea gustatzen zaie eta urtero asmakizun berrien lehiaketa antolatzen dute. Asmatzaile famatuenetako bat Oskar da, Lotte txakur-eme indartsuaren aita. Bere lehiakide nagusia

Adalbert untxia da; emazteak ere lehiaketan gogoz parte hartzen du. Hauentzat irabaztea oso garrantzitsua izango da. Untxi familia osoarentzat ohore handia izango litzateke.



HORTON

Animaziozko abentura dibertigarri honetan, Horton, elefante alai eta jostari bat, airean esekitako hauts-izpi baten larrialdi-deiari erantzutera doa. Gezurra dirudien arren, hauts-izpi horretan herri txiki bat dago, herritar nimenio batzuekin. Herritarrok, hain txikiak izanda ere, arazo handiak dituzte. Hortonek ausardiaz egin beharko die aurre basoko arriskuei bere lagun berriak babesteko.

(lorezaintza gomendioak)

Aloe-Vera

Etxean honelako landare bat edukitzeak ondorio pozgarriak emango dizkizue.

Landatzea

Behar duen lurra aroa behar du edo hondar askokoa, heldutasunera heltzeko. Kontuan hartu behar dugu ez dugula inoiz ongari kimikorik erabili behar; beraz, ongaria botatzekotan beti organikoak izango dira(ximaur lehorra, konposta, guano...).

Aloe-vera ontzian badugu, hau ez da oso handia izan behar, hostoen ordez sustraiak haziko zaizkiolako. Gogoratu harri txikiak jartzea ontziaren barrenean, zuloa itxi ez dadin.

Ureztatzea.

Landare honek ur asko mantentzen du barnean, beraz, ez dugu gehiegi ureztatu behar, bestela, usteldu egingo zaigu. Ureztatze egokia egiteko ondo busti behar dugu, eta gero, ondo lehortu arte ez diogu berriro urrik botako.

Temperatura

Ez ditu temperatura oso hotzak jasaten, 0º baino baxuagoak. Oso gazteak direnean, eguzki izpi zuzenetatik babestuko ditugu.

Erabilera

Bere propietate osasungarriagatik landatzen da hainbeste aloe-vera. Hostoen sabia kanpo inflamazioak sendatzeko erabiltzen da: erredurak, ebakiak, zauriak... Hostoen barruan dagoen gela erabiltzen da. Erabili aurretik ziurtatu bost egun aurretik ez duela urrik jaso. Hosto zaharrek erabili behar ditugu. Hostoa moztzen dugunean ikusiko dugu barruan gela duela, eta hau da zaurian, erreduran... eman behar duguna. Garrantzitsua da landareak hiru urte baino gehiago izatea, orduan baititu bere propietateak puri-purian. Bere ezaugarriak direla eta, asko erabiltzen da kosmetikagintzan eta farmaziagintzan, kremak, txanpuak, olioak eta abar egiteko.



Maixel Garmendia Izadia Loradenda. BEASAIN 943 88 14 40



(errezeta)

Txokolate zuri musa marrubiekin

Osagaia: 6-8 pertsonentzako.

- 300 gr txokolate zuri (kobertura)
- 400 cl esnegain
- 500 gr marrubi

Prestakuntza:

Hasteko 100 cl esnegain mikrouhinean berotuko dugu. Behin berotuta, 300 gr txokolate zuri gehituko diogu, erabat urtu arte. Bestalde, 300 cl esnegaina harrotuko dugu. Gogoratu ahal denik hotzena egon behar duela errazago harrotu dezagun. Ondoren, txokolatea poliki-poliki gehituko diogu, KONTUZ! oso errez moztu daiteke eta; eskuen bidez nahasten joango gara. Ez erabili harrotzeko erabili dugun tresna, mozteko arriskua dago eta. Hozkailuan sartuko dugu ordu pare batez, ongi hoztu arte.

Marrubiak garbitu ondoren, xerratan txikituko ditugu eta musari gehitu eta nahastu. Gutxi batzuk apartatuko ditugu, gainean dotore-dotore jartzeko.



Jose Ignacio Duhau Rubioren Jatetxea. BEASAIN 943 88 57 60